

Sistema publikoak estaltzen ez dituen edo partzialki estaltzen dituen osasun-zerbitzuak egoteak desberdintasun handiak sortzen ditu Euskadin osasun-laguntza eskuratzeko orduan

Maite Morteruel
eta Unai Martín



Klase sozial altuenetako edo ikasketa maila handiagoko pertsonak neurri handiagoan eskuratu zituzten osasun-sistema publikoak erabat estaltzen ez dituen osasun-zerbitzuak, fisioterapia, dentista edo podologia, kasu.

Iradokitutako aipua: MORTERUEL, M. Y MARTIN, U. (2020). *Sistema publikoak estaltzen ez dituen edo partzialki estaltzen dituen osasun-zerbitzuak egoteak desberdintasun handiak sortzen ditu Euskadin osasun-laguntza eskuratzeko orduan*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>




Badira sistema publikoak estaltzen ez dituen edo zati batean bakarrik estaltzen dituen osasun-zerbitzuak. Horrek esan nahi du zerbitzu horietara joaten diren pertsonak zuzenean edo aseguru pribatu baten bidez ordaindu behar dutela jasotako laguntza edo, behintzat, horren zati bat, osasun-sistema publikoak finantzatzen ez duena. Zerbitzu horien artean daude, adibidez, dentista, fisioterapia edo podologia zerbitzuak.

Zerbitzu horietarako aukera deskribatzeko, inkesta egin aurreko azken urtean hortzetako, fisioterapiako eta podologiako arreta eskatu izanari buruz herritarrek emandako erreferentziak jasotzen dira. Emaitzak klase soziala eta hezkuntza maila kontuan hartuta eta gizonak eta emakumeak bereizita azaldu dira.

Azken urtean dentistaren zerbitzura joateari dagokionez, ikusi dugu emakumeak sarriago joaten direla gizonezkoak baino baliabide horretara (%54,2 vs %47,1).

Baliabidera jotzeko aukera klase sozialaren arabera aztertzen denean, 1. grafikoan ikus daitekeen moduan, klase sozial mesedetuenetakoek (I) portzentaje handiagoan jotzen dute dentistarengana klase sozial behartsuenetakoek (V) aldean. Baliabide horretarako aukerak gradiente argi bati jarraitzen dio, eta, eskala sozialean behera egin ahala, txikiagoa da biztanleriak dentistaren kontsultara joateko duen proportzioa. Muturreko klase sozialen arteko arrakala handiagoa da gizonen kasuan. Hala, klase sozial mesedetuenen (I) eta behartsuenen (V) arteko aldea ehuneko 27,2 puntukoa da gizonen artean, emakumezkoen artean ehuneko 20,1ekoa den bitartean.

1. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN DENTISTAREN ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE OINARRITUTA

2. grafikoan ikus daitekeen moduan, dentistarenganako aukera ikasketa mailaren arabera aztertzen badugu, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak proportzio handiagoan jotzen dute laguntza-baliabide horretara ikasketarik gabekoak edo lehen mailako ikasketak dituztenen aldean, edo bigarren mailako ikasketak dituztenak baino. Berritoe ere, banaketa horrek gradiente bati jarraitzen dio, ikasketa maila zein den, eta ikasketa maila baxueneko eta altuenekoaren arteko arrakala antzekoa da gizonen eta emakumeen artean, ehuneko 29 punturen inguruan dabilelarik.

2. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN DENTISTAREN ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




EUSKADI 2018. ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAEIOIN OINARRITUTA

Azken urtean fisioterapia zerbitzura joateari dagokionez, ikusi dugu emakumeak sarriago joaten direla gizonezkoak baino baliabide horretara (%16,4 vs %13,5).

Klase soziala kontuan hartuta, 3. grafikoan ikus dezakegu klase sozial mesedetuenetakoak gehiago joaten direla fisioterapia zerbitzura klase sozial baxuagokoen aldean. Baliabide horretara jotzeko aukerak gradiente bati jarraitzen dio, bai gizonezkoen kasuan bai emakumezkoengan ere, eta gizarte mailan behera goazen heinean behera egiten du, halaber, fisioterapia zerbitzura joaten den portzentajeak. Emakumeen kasuan, jaitsiera areagotu egiten da, eta klase sozial behartsuenen (IV eta V) proportzioa nabarmenkiro txikiagoa da klase mesedetuenetakoan (I, II, III) aldean –ehuneko 5 eta 7 punturen artean, hurrenez hurren–. Gizonezkoetan, berriz, muturreko klase sozialen arteko arrakala 3,5 puntukoa da.

3. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN FISIOTERAPIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN OINARRITUTA

Ikasketa maila kontuan hartuta fisioterapia zerbitzura joateko aukera aztertzen badugu, 4. grafikoa ikus dezakegunez, desberdintasun-eredua erreproduzitzen da berriro gradiente moduan emakumeen kasuan. Hala, emakumezko unibertsitarioak ehuneko 9,2 puntu gehiagoan jotzen dute zerbitzu horretara ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen aldean. Gizonen kasuan, berriz, ikasketarik ez dutenak edo lehen mailakoak dituztenak dira, proportzioz, fisioterapia zerbitzura gutxien jotzen dutenak, nahiz eta gradiente-eredua ez horren argia izan emakumezkoetan bezala: zerbitzu horretara gehien jotzen duten gizonezkoak goiko bigarren mailako eta beheko bigarren mailako ikasketak dituztenak dira, eta gero unibertsitarioak.

4. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN FISIOTERAPIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN OINARRITUTA

Azken urtean podologia zerbitzura joan direnei dagokionez, ikusi dugu emakumeak sarriago joan direla gizonezkoak baino baliabide horretara (%12 vs %5,5).

Zerbitzu horretara joatea klase sozialen arabera aztertuta, 5. grafikoan ikus daitekeenez, klase sozial mesedetuenetakoek (I, II eta III) portzentaje handiagoan joaten dira klase sozial behartsuenetakoek (VI eta V) aldean. Horretarako aukerak gradiente bati jarraitzen dio gizonezkoetan nola emakumezkoetan, eta klase sozialean behera egiten den heinean txikiagoa da podologia kontsultara joaten den herritarren proportzioa. Muturreko klase sozialen arteko arrakalaren magnitudea antzekoa da gizon eta emakumetan, klase sozial mesedetuenekoak ehuneko 6 puntu gehiagoan joaten direlarik klase sozial behartsuenetakoek aldean.

5. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN PODOLOGIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




■ GIZONAK ■ EMAKUMEAK

I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN OINARRITUTA

Ikasketa maila kontuan hartuta podologia zerbitzura joateko aukera aztertzen badugu, ikusiko dugu nola hemen ere, 6. grafikoan ikus daitekeenez, desberdintasun-eredua nagusitzen den gradiente baten moduan, bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan. Hala, emakumezko unibertsitarioak ehuneko 6,8 puntu gehiago jotzen dute zerbitzu horretara ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen aldean, eta, unibertsitate-ikasketak dituzten gizonezkoak, berriz, ehuneko 5,3 puntu gehiago joaten dira.

6. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN PODOLOGIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 01NARRITUTA

Laburbilduz, desberdintasun handiak ematen dira sistema publikoak estaltzen ez dituen edo partzialki estaltzen dituen osasun-zerbitzuetarako aukeran. Desberdintasun horiek ez dira ematen soilik talde sozioekonomiko mesedetuena eta behartsuena artean; gradiente bati jarraitzen diote aztertutako hiru zerbitzuetan, gizarte-espektro osoa zeharkatzen duen gradientea izanik, gainera, eta klase sozial mailan edo ikasketa mailan behera egiten den heinean behera egiten du ere zerbitzu horietako aukerak. Desberdintasunaren magnitudea handiagoa da dentista zerbitzurako aukeran, batez ere hezkuntza maila kontuan hartzen denean. Izan ere, klase sozial behartsuenerako eta ikasketa maila txikienerako pertsonen kaltetan den gizarte-gradiente bati jarraitzen dio. Ikasketa maila kontuan hartzen bada, aipatu desberdintasuna handiagoa da emakumeen artean fisioterapia eta podologia zerbitzuetarako aukeran.



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)